

LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

1.- Egitasmoaren izenburua:

EKITALDIAK ANTOLATZEKO ENPRESA ABIAN JARTZEA

2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2018

3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- ☒ II. Kap.: Ekintzailetzarako laguntzak.
- ☐ III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- ☐ IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- ☐ V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- ☐ VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

4. - Proiektuaren helburua:

5.- Inbertsio totala: 28.797,38 euros

6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 20.325,03 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk: 0,00 euro

7.- Onuraduna:

BEATRIZ PÉREZ DE MENDIOLA MURO

- ☐ Publikoa
- ☒ Pribatua

8.- Lankide edo entitate partehartzaileak:

9.- Inbertsio edo aktuazioen lokalizazioa:

Zuia, Araba

10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

Oro har, nire enpresa-proiektuaren oinarria **ekitaldiak planifikatzea eta antolatzea** da, bereziki, ezkontzak eta familia-ekitaldiak baina enpresa-ekitaldiak eta, oro har, ospakizunak antolatzeko aukerak ere aztertzen ditut.

Zeinahi ekitaldi-mota egin nahi denean, horretaz arduratzen den pertsonak denbora luzea eman behar du ekitaldia antolatu ahal izateko behar den guztia bana-banaka bilatzen, adibidez, catering zerbitzua, dekorazioa, garraioa, girotzea... baina antolakuntza ez da soilik beharrezkoa den guztia bilatzea, ezpada, guztiaren jarraipena eta kontrola egitea, egun berezi horretan dena primeran atera dadin.

Enpresa-proiektu honen bidez, bezeroak horrelako ekitaldien inguruko plangintzak eta antolaketak dakarkien zamatik libratu nahi ditut, bezeroak eskatzen duen edozertarako hainbat aukera eskainiz, modu eroso, seguru eta, batez ere, pertsonalizatuan, bezeroaren beharretara eraz egokitzeke.

Hauek dira **wedding-event planner** edo ezkontza-antolatzaile baten eginkizunetako batzuk:

- Bezero bakoitzari aholkuak eta ideiak ematea, inoiz ez haren partez erabakitzea,
- Ekitaldiaren erritmoa xehe-xehe prestatzea.
- Bezero bakoitzaren aurrekontua kudeatzea eta ahalik eta probetxurik handiena ateratzea.
- Bezero bakoitzaren neurriko hornitzaileak bilatzea.
- Prezioak eta baldintzak hornitzaileekin negoziatzea.
- Bezeroei laguntzea hornitzaileekin egiten diren bileretan.
- Ekitaldiaren dekorazioa diseinatzea eta gauzatzea.
- Ekitaldiaren egunean, hornitzaileak koordinatzea.

11.- Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

Ekitaldi bat antolatzen dudan bakoitzean, ahal den guztietan, eskualdeko hornitzaileekin lan egiten dut... Hala, tokiko ekoizle eta inguruko enpresa askok bat egiten dute ekitaldian, sinergiak lantzen dira, esperientziak partekatzen dira.

Hauekin guztiekin lan egiten dut: Guikuri, Rosbel Zuia, Casa del Patron hotel-jatetxea, Areso taberna, Markina loreak, Blanca gozoak, Zuiako Udala... eta beste asko!

Udalerrian, nire zerbitzuak ezagutu eta gero, jende askok ni kontratatzea erabaki du, egin asmo zeukaten ekitaldi horretan lagun niezaien, nondik hasi ez zekitela (ezkontza, urteurrena, inaugurazioa, urtebetetzea, jaia...).